

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

608

EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 27koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria-rena, zeinaren bidez xedatzen baita argitara ematea Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeak herri-administrazioetako langileen hizkuntza-prestakuntzarako sinatutako kudeaketa-gomendia.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak (IVAP) eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeak (HABE) kudeaketa gomendio hori sinatu dute; beraz, zabalkunde egokia izan dezan, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artíkulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak (IVAP) eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeak (HABE) herri-administrazioetako langileen hizkuntza-prestakuntzarako sinatutako kudeaketa gomendia. Hitzarmen horren testua honen eranskinean dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 27a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

2021eko otsailaren 3a, asteazkena

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (IVAP) ETA
HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN
(HABE) ARTEKO KUDEAKETA-GOMENDIOA, HERRI-ADMINISTRAZIOETAKO
LANGILEEN EUSKARA IKASTAROAK BIDERATZEKO

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 25a.

BILDURIK:

Alde batetik, Maite Iruretagoiena Iburguren, IVAPeko zuzendaria.

Bestetik, Jokin Azkue Arrastoa, HABEko zuzendari nagusia.

ADIERAZI DUTE:

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan eta, Autonomia Estatutuaren 6. artikulua araberak, eta Autonomia Erkidegoko herritar guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Bestalde, Autonomia Erkidegoko erakunde komunek bi hizkuntzok erabili ahal izatea bermatu beharko dute, ofizial izatea arautuz. Eta horrekin batera, beharrezko neurriak hartu eta baliabideak bideratuko dituzte, euskararen eza-gutza ziurtatzeko.

Aipatutako Estatutua garatzeko, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, gaztelaniaren eta euskararen ofizialtasuna berretsi zuen, bai eta herri-agintek herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko betebeharra ere.

Betebehar horien artean daude honako hauek: herri-administrazioari atxikitako langileak euskalduntzeko neurriak hartzea, hizkuntza biak ezagutzeko derrigortasuna duten lanpostuak zehaztea eta gainerako lanpostuak lortzeko euskaraz jakitea meritutzat hartzea.

Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legearen xedapenak euskal herri-administrazioen eta horien zerbitzura dauden langileen errealitatera egokitzeko, 1989ko uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezartzen ditu herri-administrazioetan eta jarduera administratiboaren hainbat sektoretan aplikatu beharreko oinarrizko ildoak.

Halaber, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legea nahiz Euskal funtzio publikoaren Legea garatzeko, hainbat arau eman dira; horien artean, hitzarmen honen xederako, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Elkarte herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena, azpimarratu behar da.

Arau horiek, herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (IVAP) nahiz Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeari (HABE) esleitzen dizkiete eskumenak.

HABE administrazio-erakunde autonomiadunaren helburuak azaroaren 25eko 29/1983 Legean daude zehaztuta eta, besteak beste, hauexek dira:

Euskara irakastea helduei, eta helduen alfabetatzea eta euskalduntzea sustatzea, Jaurlaritzako hizkuntza-politikaren arloan eskumena duen organoak emandako jarraibideen ildotik.

Berezkoak dituen helburuak lortzeko bideak, moduak eta tresnak aztertzea eta bilatzea.

Ikasmaterialak sortu eta argitaratzea.

Helduak euskaldundu eta alfabetatzeko programak ikastegietan erabiltzea.

Euskaltegiak era daitezen sustatzea, arrazoizko plangintzari jarraiki eta irizpide soziolinguistikoak kontuan hartuta.

Helduak euskaldundu eta alfabetatzeko lanak egiten dituzten erakunde publiko zein pribatuen aldeko laguntzak ematea, eta plan zehatzak egiteko hitzarmenak izenpetzea.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen erakunde autonomo administratiboaren helburuak uztailaren 27ko 16/1983 Legean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Lege Jaurpideei buruzkoan, biltzen dira eta helburu horien artean nabarmenenak, kudeaketa-gomendio honen xedearekin duten loturagatik, honako hauek dira:

Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legean agintzen dena betez, euskara herri-administrazioan sarraraztea, hedatzea, erabiltzea eta arauzkotzea, baita administrazio-hizkera zehaztea ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta beste edozein herri-administraziook edo araubide juridikok bere esku utz dezakeen funtzionarioen eta kontratadunen prestakuntza eta hobekuntza.

Halaber, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak berariaz esleitzen dizkio hizkuntza-eskakizunak ebaluatu eta egiaztatze eskumenak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (IVAP):

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak erabakiko ditu kasu bakoitzean beharrezko izango den euskararen jakintza haztatzeko saioen edukia eta nolakoa, eta horiek euskal Administrazio Publiko guztientzat berdinak eta guztiek ezarri beharrekoak izango dira.

Erakunde horretako ordezkari bat izango da epaimahaikide deian eskatutako hizkuntz eskakizuna egiaztatze saioetan. Lanpostuak betetzeko lehiaketak epaitzeko batzordeen osaketan ere, ordezkotza hori, ondorio beretarako, beharrezko izango da.

Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko 297/2010 Dekretuan, azaroaren 9koan, ezarritakoaren arabera, Kultura Sailaren helduei euskara irakasteko oinarrizko curriculumak ezarritako euskara-mailen ziurtagiriek eta IVAPek emandako hizkuntza-eskakizunen ziurtagiriek baliokidetasunak dituzte hala Europako Markoan –eta, maila horien arteko baliokidetasunaren bidez– nola elkarren artean.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) zazpi hitzarmen sinatu dituzte:

Lehen hitzarmena, 1987ko otsailaren 9an sinatu zuten (1988ko martxoaren 10ean eta 1989ko otsailaren 24an berritu), eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioari atxikitako langileak euskaraz jarduteko gaitzeari buruzkoa zen.

Bigarren hitzarmena 1989ko abenduaren 21ean sinatu zuten eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) arteko lankidetzaz ezartzen zuen, urriaren 17ko 224/1989 Dekretuaren 24. artikuluan eta Seigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, eta zati batean barne hartzen zuen 1987ko otsailaren 9ko hitzarmena (1989ko otsailaren 24an berritua).

Hirugarren hitzarmena erakunde autonomo biek 1999ko ekainaren 22an sinatu zuten, herri-administrazioetako langileak euskalduntzeko.

Laugarren hitzarmena, herri-administrazioetako langileak euskalduntzekoa, erakunde biek 2003ko otsailaren 5ean sinatu zuten, eta 2006ko ekainaren 28ko Addendak aldatu zuen, alegia, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) herri-administrazioetako langileak euskalduntzeko sinatutako hitzarmena aldatzekoak, eta 2007ko azaroaren 28an sinatu zuten lehen aipatutako hitzarmenaren aldaketa.

Bosgarrena 2010eko abenduaren 14an izenpetu zen eta herri-administrazioetako langileen Hizkuntza-prestakuntzarako eta Hizkuntza-gaitasunaren ebaluaketarako kudeaketa-gomendio forma izan du, 2015eko abenduaren 31ra arteko indarraldia izan duelarik.

Seigarrena 2016ko abenduaren 19an izenpetu zen eta herri-administrazioetako langileen Hizkuntza-prestakuntzarako kudeaketa-gomendio forma izan du, 2016ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izan duelarik.

Zazpigarrena 2017ko urriaren 10ean izenpetu zen eta herri-administrazioetako langileen Hizkuntza-prestakuntzarako kudeaketa-gomendio forma izan du, 2020ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izan duelarik.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.1 artikulua esaten duenez, «Administrazio organoen edo zuzenbide publikoko entitateen eskumeneko jarduera materialak edo teknikoak administrazio bereko edo beste bateko organoen edo entitateen gomendio utz daitezke, jarduera horiek haien eskumenen barruan badaude, eraginkortasunari begira komeni bada, edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago».

IVAPek kudeaketa-gomendio honetan aurreikusten diren lan guztiak egiteko behar diren baliabide teknikoak ez dituela eta, ondorioz, bidezkoa dela helburu horretarako baliabideak dituen erakundeari, hau da, HABEri, ematea.

Hori guztia ikusita, IVAP eta HABE honako akordio honetara iritsi dira:

AKORDIOA

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako langileei euskara ikastaroak antolatzeke, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eskumenekoak diren jarduera material eta teknikoak Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeari (HABEri) kudeaketa-gomendia ematea.

Bigarrena.– Kudeaketa-gomendio hori burutzeko baldintza zehatzak akordio honen eranskinen jasotzea.

Hirugarrena.– Akordio honen testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Kudeaketa-gomendio honek eragina izango du EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 2021eko abenduaren 31ra arte. Kudeaketa-gomendia indarririk gabe uztea eskatuko balitz, bi alderdiek jarraipen-batzordean adostuko dute martxan dagokeen ikasturtea amaitu arteko lan gehigarrien kostua.

Esandakoarekin bat datozela frogatzeko, bi aldeek kudeaketa-gomendio hau izenpetzen dute.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 25a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen izenean,
MAITE IRURETAGOIANA IBARGUREN.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen izenean,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

ERANSKINA

GOMENDIOAREN HELBURUA ETA NONDIK NORAKOA

Lehenengoa.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua xedatzen duenaren baitan, HABEk eta IVAPek adostu dute, efikaziaren mesedetan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako langileei euskara ikastaroak antolatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eskumenekoak diren jarduera material eta teknikoak Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeari (HABEri) kudeatzeko gomendioa ematea.

Kudeaketa-gomendioa hurrengo arlo honetan gauzatuko da:

Herri-administrazioetako langileentzako euskara ikastaroak antolatzea, bai aurrez aurrekoak eta bai autoikaskuntza bidezkoak ere, hizkuntza-eskakizunetan ezarritako mailak gainditzeko.

Bigarrena.– Kudeaketa-gomendio honen barruko lanak, araubide juridikoak alderdi bakoitzari aitortzen dizkion eskumenak errespetatuz burutuko dira. Beraz, kudeatzeko gomendio horrek ez du esan nahi ez eskumenaren titulartasuna, ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak, lagatzen direnik.

Hirugarrena.– Herri-administrazioetako langileentzako euskara ikastaroen deialdiak IVAPek egingo ditu, eta berak jaso eta bideratuko ditu parte hartzeko eskariak.

Laugarrena.– Herri-administrazioetako langileentzako euskara ikastaroak bat etorriko dira HABEK homologatzen dituenekin eta IVAPek bere deialdian zehazten dituen moduluekin.

Bosgarrena.– Ikasturtea hasi aurretik IVAPekin euskara ikastaroetara artean joan ez den eskatzaile bakoitzak, HABEK, IVAPen eskariz, behar diren mailaketa probak antolatuko ditu, eskatzaile bakoitza bere mailan taldekatu ahal izateko.

Seigarrena.– Ikasturtearen hasieran herri-administrazioetako langileez osatzen diren berariazko taldeen aurreikuspena aplikazio informatikoan eskura jarriko dio IVAPek HABEri. Aurreikuspen hori batera egingo dute IVAPek eta HABEK, hamahirugarren klausulan ageri den jarraipen-batzordearen baitan; gutxienez, bi erakundeen ordezkari banak parte hartuko du.

Ikasturte bakoitzaren hasieran, IVAPek ikastaroetarako onartu diren herri-langileen zerrenda zehaztua jarriko du HABEren eskueran. Zerrenda horretan, gutxienez, honako datu hauek azalduko dira: izen-abizenak, NAN, ikasiko den euskara-maila eta prestakuntza zein herritan jasoko den. Zerrenda horretan gertatzen diren alden, baje, eskola-uzteen eta gainerako aldaketen zehaztapen eguneratua izango du ikusgai IVAPek bere aplikazio informatikoan HABEK kontsulta dezan eta behar diren egokitzapenak egin ditzan.

Zerrenda horretan sartutako herri-langileek, Kudeaketa-gomendio honen ondorioetarako, eskolak hartzen hasten direnetik eskuratzen dute ikasle-izaera.

Ikastaroetarako onartuta dauden baina hainbat arrazoiengatik berariazko ezein taldetan lekurik ez duten ikasleei, matrikula-orria igorriko die IVAPek, bakoitzak bere matrikula kudea dezan euskaltegi publiko edo pribatu homologatu batean. Kasu horretan, euskaltegiari egokituko zaio matrikula-orria behar bezala beteta HABEri igortzea, hark IVAPi bidal diezaion.

Autoikaskuntza sistema hautatzen duten eta baimentzen zaien ikasleak matrikula-orri bidez eskolatuko dira.

Autoikaskuntza modulua onartua duten ikasle horien berri zehatza emango dio IVAPek HABEri ikasturtearen hasieran.

IVAPek matrikula orriek zehazten dituzten baldintzapeko ikastaro edo moduluak bakarrik onartuko ditu.

Zazpigarrena.– HABEk euskara ikastaroak emateko giza bitartekoak eta baliabide materialak ipiniko ditu.

HABEk ziurtatuko du euskal herri-administrazioetako langileek osatutako taldeei euskarako eskolak emateaz arduratzen diren irakasleek beharrezko profesionaltasuna eta esperientzia daukatela, kalitateko irakaskuntza ziurtatzeko.

Zortzigarrena.– HABEk ikastaroen ikuskaritza eta jarraipen tekniko-pedagogikoa egingo ditu, bai eta ikasleen bertaratzearen eta aprobetxamenduaren kontrola ere, eta hartara behar diren giza bitartekoak eta baliabide materialak ipiniko ditu. Egoki jotzen denean edo erakunderen batek eskolatutako bere langile baten azalpenak eskatzen dituenean edo beste beharren bat sortzen denean, IVAPek berariazko txostenak eska diezazkioke HABEri. Eginkizun horiek guztiak betetzeko, HABEk beharrezko datuak bildu eta mekanizatuko ditu, eta informazio osagarria prestatu.

Edonola ere, ikasleen ikasprozesuari jarraipena, ahalik eta osoena eta banakakoena, egiteko, IVAP eta HABE koordinatuko dira, beharrezko sistemak eta metodoak garatzeko.

Halaber, ikasleen matrikulen kudeaketari dagokionez, euskaltegiek igorritako matrikula-orriak jaso, aztertu, zuzenarazi hala badagokio, onartuko ditu HABEk eta IVAPi bidaliko dizkio.

Bederatzigarrena.– Kudeaketa-gomendio honen urteko zuzkidura ekonomikoa zehazteko aurreko urteko datuak izango dira oinarria, eta erabiliko den erreferentzia ikasle-orduak izango dira.

Ikasle-ordu horien informazio egokia izateko, ikastaro bakoitzaren hasieran HABEk IVAPi bidaliko dizkio ikasle-ordu nominalak, hau da, ikasle bakoitzaren ikastaro osoko ordu kopurua, matrikula-orrien bidez eskolaratzen diren ikasleen kasuan.

Administrazio taldeetako ikasle bakoitzaren ikasturte osorako orduen aurreikuspena eta ikasle horien eskola-orduen hilez hileko kitapena ere bidaliko dizkio HABEk IVAPi.

Ikasle solte eta administrazio taldeetako ikasleen informazio hori guztia jasotzeko hileroko eguneratuko den euskarria zein izango den adostuko dute HABEk eta IVAPek.

Hamargarrena.– HABEk IVAPen eskueran jarriko ditu herri-administrazioetako langileen hileko bertaratzeari eta aprobetxamenduari buruzko datuak. Datuen transmisio elektronikorako egitura eta diseinu egokia duen bide bat ezarriko da, dagozkien aplikazio informatikoen arteko komunikazioa ahalbideratzen duena.

Era berean, HABEk langile guztien eguneko/orduko bertaratzea bidaliko du, modu mekanizatuan eta hilean behin, erakundeek informazio hori laneko bertaratzearen eta gorabehera justifikatuen kontrolari buruzkoarekin erka dezaten.

IVAPeko ikasleen euskalduntzea ordu-kreditu sisteman baten menpe dago. Ordu-kreditu hori Agindu batek arautzen du eta betiko urratsen (101...112) sisteman oinarritzen da. IVAPek Agindua egokitzen duen arte ikasle bakoitzaren ibilbide formatiboa, mailaketa proben emaitzak e. a. HABEren HEOC-k ezartzen dituen mailekin eta horiei zegozkien urratsekin helaraziko zaizkio IVAPi.

Jarraipen-batzordeari egokituko zaio bidalitako informazioa aztertzea eta neurri zuzentzaileak edo hobekuntzakoak proposatzea, bai edukiari dagokionez, bai bidaltze-prozesuari dagokionez.

Hamaikagarrena.– HABEk izendaturiko koordinatzaile bat edo arduradun nagusi bat egongo da gutxienez, HABEren eta IVAPen arteko koordinazioa errazteko. Orobat, lurralde historikoetan ere koordinatzaile bana egongo da, HABEk izendaturik.

Hamabigarrena.– Akordiodideek egoki jotzen dituzten ebaluazio-sistemak adostuko eta abian jarriko dituzte, ikasprozesuan parte hartzen dutenen asebetetze-maila ezagutzeko. Hain zuzen, ikasturtearen amaiera aldera, herri-langileek osatutako taldeetan galdetegi bat banatuko da. Galdetegi horretan, beste neurkizun batzuen artean, oro har, ikastaroarekiko –eta, bereziki, irakasleekiko– duten asebetetze-maila neurtuko da. Horretarako, galdetegiak anonimoak izango dira, baina egin direneko talde zehatzei lotuta joango dira. Horrela, inkestaren emaitzak dagokion eus-kaltegi edo irakaslearekin lotu ahal izango dira.

Irakasleei buruzko informazioa eta balorazioa garrantzi berezikoak izango da, jarraipen-batzordeak irakasleak hobetzeko neurriak objektibatzeke, eta, puntuazio baxuak badituzte, programan jarraitu behar duten edo ez erabakitzeke.

JARRAIPEN-BATZORDEA

Hamahirugarrena.– Jarraipen-batzorde bat eratuko da, IVAPeko eta HABEko kideek osatua, Kudeaketa-gomendio hau behar bezala kudeatu eta interpretatu ahal izateko, bai eta antolaketak-gaien, etab.en inguruan sor litezkeen arazoak konpontzeko ere. Jarraipen-batzordearen egitekoak honako hauek dira:

– Ikastaro bakoitzaren hasieran eratu daitezkeen herri-langileen berriarazko taldeei buruzko aurreikuspena egitea. Horretarako nahikoa izango da bi erakundeetako kide banak, gutxienez, parte hartzea.

– Ikasketa-prozesuak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzearen inguruan aztertzea, bien arteko koherentzia bilatuz.

– Jarraipen-batzordeari egokituko zaio irakasleek hobetzeko eta birziklatzeko dituzten benetako beharriak aztertzea, bereziki Kudeaketa-gomendio honen mende dagoen ikasleen berriarazko ezaugarrietara egokitzeari dagokionez; era berean, batzorde horri dagokio helburu hori lortzera bideratutako ekintzak proposatzea.

– Informazioa elkartrukatzeko prozesuak aztertzea eta antzemandako arazoak konpontzeko neurriak proposatzea.

– Ikasleen gogobetetze-mailari buruzko inkestaren emaitzak aztertzea eta identifikatutako hobekuntza-esparruetako hobekuntza-ekintzak proposatzea eta bultzatzea.

– Oro har, kudeaketa-gomendio honetan adostutakoak gauzatzeko orduan sor daitezkeen oztopo eta arazoak aztertu eta konpontzeko bideak proposatzea eta bideratzea.

– Jarraipen batzorde honek bilerak egingo ditu martxoan, ekainean, irailean eta abenduan, eta, horretaz gain, HABEk edo IVAPek beharrezko jotzen duten guztietan.

Jarraipen-batzorde horrek honako osaera hau izango du:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) izenean:

a) IVAPeko Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio zerbitziburua.

b) IVAPeko Hizkuntza Prestakuntza arloko arduraduna.

c) IVAPeko Hizkuntza Prestakuntza arloko teknikari bat.

– HABEren izenean:

a) HABEko Kudeaketa Zerbitzuko burua.

b) HABEko Ikuskatzailera ataleko arduraduna.

c) HABEko Ikuskatzailera ataleko teknikari bat.

FINANTZAKETA, ORDAINALDIAK ETA XEDAPEN OROKORRAK

Hamalagarrena.– Kudeaketa-gomendio honen jarduerak finantzatzeko IVAPek guztira 3.800.000,00 euro ordainduko dizkio guztira HABEri 2021 urtean herri administrazioetako langileen euskalduntzeak dakartzan ikasleen matrikula-orriak estaltzeko eta egiturazko gastuentzako IVAPen ekarpen gisa. Zenbateko horrek barne hartzen du 200.000 euroko gehigarri bat, COVID 19ak eragindako ikasle-ratio txikiagoa eta autoikaskuntza tutorizatuko ikasle-kopuru handiagoa konpentsatzeko.

Esandako diru-zenbateko horretan sartuko dira gomendio honen pean HABEK IVAPi emango edo egingo dizkion zerbitzu guztiak.

Hurrengo urteko ikasle-orduak zehazteko, aurreko azaroan aztertuko dute IVAPek eta HABEK, Jarraipen-batzordean bildurik, urteko ikasle eta ikastaroen eboluzioa.

Esandako diru-zenbateko horietan sartuko dira Hitzarmen honen pean HABEK IVAPi emango edo egingo dizkion zerbitzu guztiak.

Hamabosgarrena.– Urtean hiru ordainaldi berdinetan ordainduko dio IVAPek HABEri, urteroko martxoaren, uztailaren eta azaroaren bukaeran. Azaroko ordainketan egingo da, Jarraipen-batzordean adostu ondoren, urteko kitapena.

Gehienez ere 21 egun naturaleko epea ezartzen da, HABEK faktura aurkezten duenetik hasita, IVAPek datuok Aurrekontu Informazioko Sistema Bateratuan (IKUS) sar ditzan eta HABEK fakturatutako zenbatekoari dagozkion gastuen kudeaketa-agiria izapidetu dezan.

Faktura horiek lurraldekako gastuak jaso eta erakutsiko dituzte.

Beste aldetik, kudeaketa-gomendio honen aplikaziorako, HABEK 2021eko maiatzaren 1erako eskuratuko dizkio IVAPi 2020 urteko ikasle-orduen datuak, lurraldeka, mailaka, moduluka eta euskaltegia, IVAPek datu base egokia sor dezan.

Hamaseigarrena.– Kudeaketa-gomendio honen egikaritzea ondorengo arauak betez burutuko da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko den abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

Gomendioa egiten duen erakundea (IVAP) datuen tratamenduko Arduraduna izango da, eta kudeaketa-gomendioa jasotzen duen erakundea (HABE) tratamenduko Eragilea izango da; bi erakundeen artean, hitzarmen honen eranskinean agertzen den tratamendu-enkarguaren kontratua sinatu beharko da.

Hamazazpigarrena.– Kudeaketa-gomendio honek eragina izango du EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 2021eko abenduaren 31ra arte.